PAISAIA BAKOITZARI BERE HARRIA

Paisaiaren parte garrantzitsuena erliebeak egiten du, eta erliebea harriek. Harri mota ezberdinek sorrarazten duten erliebe mota ezagutzen badugu, erraza gertatutako zaigu asmatzea paisai batean zer harri mota dauden.

Trebatzeko, hemen duzu harri mota bakoitzak sortu ohi duen erliebearen hainbat adibide; geroago, ea asmatzen duzun.

Informazioa:

HARRI MOTA	DESKRIPZIOA	IRUDIA
Harri sedimentarioak	Geruza edo estratuak antzematen dira erraz.	
Granitoak (Harri magmatiko plutonikoak)	Masa handiak geruzarik gabekoak. Forma borobilak ematen dituzte.	
Basaltoak (Harri magmatiko bolkanikoak)	Askotan zutabe formak ikusten dira.	
Arbelak	Harri metamorfiko hauek erliebe leunak eman ohi dituzte.	

Erliebea eta Harriak

12. jarduera

Begiratu argazkiei, *zein harri mota (sedimentario, magmatiko edo metamorfiko) nagusitzen da paisaia bakoitzean?*

Jarri argazki bakoitzaren azpian, lehenengo lerroan dauden aukeretako bat.

(1) H.Sedimentarioak	(2) H.Magmatikoak (granitoa)	(3) H.Metamorfikoak (arbelak)